

B

BARREN

TOKIKOM



Ehun Milak, 167 kilometro mendiz mendi

Edu Uribe, mendizalea

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kredituxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



KEBAB TXOHAN JATETXEA



Janari azkar eta zapoetsua

Aukeratu pikantearekin nahiz pikanterik gabe!

Plater konbinatuak eta menuak ere baditugu.

✓ *Dohram*



✓ *Lahmacun*



✓ *Kebab*



✓ *Patatak,
Entsaladak, ...*



San Frantzisko, 58 behea • ELGOIBAR
Tel.: 688 634 356



Eramateko eskaera egin dezakezu!

Bihotzetik

Orain dela zazpi urte gure etxeko atea eta bihotzak ireki genizkion Lidari. Gure joan-etorriko enarari. Denbora honetan zati garrantzitsua bihurtu da. Ez etxean bakarrik, lagun artean, kalean, herrian... Bere lekua egin du, siberiar-elgoibartar bihurtzeraino.

Ez da zailegia izan. Hain zuzen, asmo bat izan dugulako. Gogoz, ilusioz eta jarreraz, bihotza irekita izatea. Emateko prest egotea. Hainbeste kabida du bihotzak! Bai gordetzeko, baita eskaintzeko ere. Berdin zaio hizkuntza edo tokia, eta, gainera, ez digu inoiz diru saririk eskatuko. Sentimentuzko zorrak sortuko ditu, hori bai, baina ba al da gaur zugatik eta bihar nigatik egitea baino gauza politagorik? Keinuak egitera bultzatzen gaitu, eta eskua luzatzen dugu ondokoari laguntzeko, saminez dagoena besarkatzen dugu, eta pozik dagoenarekin alaitasun hori trukatzeko. Sentitzera, gozatzera, negar egitera ere bideratzen gaitu.

Norberaren motore fisikoa izateaz gain, baditu mila indar, ondokoaren bihotzaz gain, mundua ere mugitu ahal izango luketenak. Baina horretarako, ireki egin behar da, eta irekia mantendu. Ireki maitasunez, irribarrez eta esker onez.

Aurten gure bihotzaren zati errusiarra uztailaren 19an iritsiko da, debeku asko-asko gainditu ondoren. Eta disfrutatu ahal izango ditugu elkarrekin irribar bat, besarkada bat, begirada bat... eta ondoren, mila! Berrogeita sei egunez, hogeita lau orduz, elkarri gure presentzia oparitzeko diogu. Urteko beste egun guztietan faltako dena eta bihotzaren laguntzaz ordezkatzeko duguna. Eskaintzeko, emateko, oparitzeko... ez da xoxik behar, gogoia baizik. Probatzen duenak errepikatzen du, jasotakoa beti aberasgarriagoa izaten delako!

Bihotzez denori, pa!

Lida eta Ione Ariznabarreta



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Eskaintzeko, emateko, oparitzeko... ez da xoxik behar, gogoia baizik"

SAN FERMIN TXIKI EGUNEKO BIDEOA ETA ARGAZKIAK JARRI DITUGU!



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

 ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

EDU URIBE

MENDIZALEA

“Bi ordu baino ez nituenez libre, bazkaltzeko orduan egunero Karakatera igotzen hasi nintzen”



Irribarre zabala eta pauso azkarra ditu, eta mendi lasterketen zerrenda luzea palmaresean. Ez dio, hala ere, aparte-ko garrantziarik ematen horri. Mendizaletasunak bizi du Edu Uribe, eta ez dauka argi mendian korrika egitera zerk bultzatu zuen, baina gorputza muturreraino behartze hori Himalayara joan ezinaren arantza kentzeko modu bat izan daitekeela dio. Mont Blanceko ultratraila dauka begiz jota, baina aurrez, uztailaren 16an, estreinako Ehun Milak proban parte hartuko du. Antolakuntza taldean ere badihardu, eta proba hori jokatzeko ilusio handiz dagoela aitortu du.

Irakaslea lanbidez eta hiru semeeren aita. Nondik ateratzen duzu entrenatzeko astia?

Eguerdietan, 12:00etatik 14:00etara. Egunean bi ordu horiek ditut bakarrik libre, eta orduan entrenatu behar derrigor. Batzuetan ez da gogo handirik izaten, baina jakin badakit eguerdian egiten ez badut ez daukadala gero astirik, eta mundu hori gustatzen zaigunez... Egia esan, ikaragarri disfrutatzen dut entrenatzen.

Zelakoak izaten dira zure entrenamenduak?

Entrenamendu laburrak, baina intentsiboak izaten dira. Ez naiz %100ean aritzen, baina bai %80an edo. Belaunak ez behartzeko, lauan entrenatzen dut orain, Mintxetako pis-

tan, egunean ordubete pasatxo. Batez ere atletismoa egiten dut, fondoa. Elkkadura ere zaintzen dut apur bat, eta atsedena hartzerena ere oso kontuan hartzen dut. Askok ez diote behar besteko garrantziarik ematen atsedena hartzeari, baina entrenamendua asimilatzeko behar-beharrezkoa da. Eguerdian bi ordu izaten ditut, baina tarte horretan beti ateratzen dut ordu laurden bat ohe gainean etzan, eta atsedena hartzeko. Oso espartanoa da nik egiten dudana, behin eta berriz berdina egiten dudalako.

Prestatzaile fisikoren bat izan duzu noizbait?

Ez, baina Eibarko kiroldegiko medikuarekin badaukat harremana eta hark beti esa-

ten dit entrenamendurik onena lauan korrika egitea edota bizikleta estatikoa egitea dela.

Noiz hasi zinen mendi lasterketetan?

Hamasei bat urte izango dira Karakateko igoera antolatzen hasi zirela eta hor beti parte hartu izan dut, baina mendiko lasterketetan semeak jaio ostean hasi nintzen, gezurra badirudi ere. Oso denbora libre gutxi nuenez, eguerdian korrika egiten hasi nintzen. Lanetik irten eta egunero Karakatera igotzen hasi nintzen, azkar-azkar. Gero, mendi lasterketen boom-a hasi zenean, orain hiruzpalau urte, batean eta bestean probatzen hasi nintzen.

Proba horietan lagun asko egiten dira, eta azkenean halako har bat sortu zitzaidan barruan, eta segi.

Askok planto egiten duten garaian hasi zinen zu hortaz.

Bai, baliteke. Orain ere, astebururo joaten gara mendira umeein, baina ez da lehengo gauza bera. Ibilbideak-eta egokitu egin behar izaten ditugu. Eta jakina, emazteak eta biok bageneukan har bat barruan, lehen astebururo ibiltzen ginelako mendian geure martxan. Aurten, berriz forman jartzea erabaki du emazteak, eta Hiru Handiak proba egitekoa du [Ekainaren 25ean jokatu zen proba hori, eta emakumezkoetan 29. amaitu zuen, 22:44:37ko denbora eginda]. Ni neu, berriz, han eta hemen nabil, gustura.

Zer eman dizu zuri mendi lasterketen munduak?

Jende eta leku asko ezagutzeko aukera. Oxigenatzeko modu bat da. Emaztea eta biok familian zentratuta gabiltza aspaldian, egun guztia koordinatuta, eta halakoetan, ihes egiteko modu bat da. Mendi lasterketetan dabilen jendea oso zorrotza da, oso fina, eta sinkronia handia sortzen da.

“Federazioaren katalogoko mendi guztiak egin ditugu, Nafarroako 80 izan ezik”

Maiatzean Los 10.000 del Soplao edo Kantabriako Infernua proba entzutetsua jokatu zenuen: 125 kilometro eta 4.600 metroko desnibela. Asteburuan, berriz, Peñalarako trail handia egin duzu, 110 kilometrokoa. Izen handiko makina bat proba badira zure zerrendan, baina zein egin zaizu gogorrena? Ez dakit. Nik uste dut jokatu nituen lehenengoak egin zitzaizkidala gogorrenak. Orain, gezurra badirudi ere, ez zait horren gogorra egiten. Hotzean pentsatuta, 125 kilometroko mendi lasterketa bat Donostiara joan eta etorri egitea adina da, baina ez dakit, nahiko ondo moldatzen naiz. Egia esan ni ere harrituta nago, baina... Nik uste dut azken hogeiturotako pilotutako eskarmentuak asko egiten duela. Belauna eta belauaren inguruko

muskuluak eginda dauzkagu, eta, zorionez, ez dugu ia lesiorik izaten. Ez da hasi berria den gazte baten kasua.

Orain besteko maiztasunarekin ez zinen ibiliko beharbada, baina zu zeu ere gazte hasitakoa zara, hala ere.

Bai, gazte hasi nintzen zeharkaldi luzeak egiten, 20 bat urterekin edo. Ezagunenak egiten nituen orduan ere: Tolosako Hamalau Orduak, Hiru Handiak, Azpeitiko Zazpi Gurutzeak, Kantrabriako zeharkaldia... Era berean, azkeneko hamabost urtean, emaztea eta biok astebururo ibili gara mendian. Euskal Herriko Mendizale Federazioko katalogoan agertzen diren mendiak egiten hasi ginen, eta bost-sei urtean, Nafarroako 80 mendi ez beste guztiak egin ditugu [587 dira guztira]. Saiatzen ginen egun batean hiru-lau mendi lotzen. Pirineotako zeharkaldia ere eginda daukat birritan. GR bat da, eta Espainia aldeko zeharkaldia, GR11 delakoa, 1994an egin nuen. Emaztearekin egin dut beste behin, 2001ean. Iraupen luze-luzeko martxa da, eta norbere kasa egiten denez, dena norberak eraman behar du. 2002an, GR 10a egin genuen, Frantzia aldetik egiten dena. Gure asmoa hurrengo urtean erdiko zeharkaldia egitea zen, HRP Pirinotako Goi Ibilbidea.

Askok dira mendian korrika egitearen kontra dauden mendizaleak. Zer diozu horren inguruan?

Eztabaida handia dago, bai. Paradoja bat da, mendiak berak jartzen duelako neurria, baina horrelako froga kontrolatuetan dena lotuta egoten da, dena ziurtatuta, eta arazorik gabe egiten dira. Ni beti izan naiz mendian korrika egitearen kontrakoa, eta askotan hausnartu dut horren inguruan, baina egia esateko ez daukat erantzun garbirik. Nik uste dut halako barne frustrazio moduko bat daukagula, beharbada ezin garelako Himalayara joan. Esaten dute mendi lasterketa bat jokatzeko duenak gorputza %100ean jartzen duela, eta era horretan Himalayako baldintza batzuk betetzen direla. Oxigeno falta eta halakorik ez, jakina, baina gorputza muturreraino behartzen dugu, eta nik uste dut Himalayara joan ezinaren arantza hori kentzeko modu bat dela. Barruan daukaguna erakusteko modu bat.

Eta gorputza mutur-muturreraino behartzeko-edo, Mont Blancoko ultratraila daukazu zuk begiz jota.

Bai, hala da. Taekwondo egiten duenak Txinako txapelketa batean izena emateko go-goia izan dezakeen modu berean, ultratrailtan gabiltzanontzako Mont Blancokoa da proba gorena. 167 kilometro ditu ibilbideak, 9.000 metroko desnibel positiboa du, eta 18.000 metroko desnibel metatua, eta 48 orduen barruan bukatu behar duzu.

Zure moduan pentsatzen duten asko daude itxuraz, izenemateak ere mugatu egin baiti-

“Gezurra badirudi ere, semeak jaiostean hasi nintzen mendi lasterketetan”

tuzte abuztuaren 28an jokatu den Mont Blancoko ultratrail horretarako.

Eskaria hain izan da handia filtroak sortu behar izan dituztela. Batetik, parte hartzeko ezinbestekoa da aurrez beste mendi lasterketa batzuetan parte hartu izana, puntu batzuk izatea eskatzen dutelako. Bestetik, *Non stop* bat da, eta lehenengo kilometroetan batez ere, filtro zorrotzak jartzen dituzte parte hartzaile guztiak kontrolatuta izateko: Adibidez, bost orduan 50. kilometrora iritsi ez dena kanporatu egiten dute. Lehenengo ehun kilometrotan, bereziki, oso zorrotzak dira, eta hor fin ibili beharra dago, baina horrik aurrera aukera daukazu lo kuluxka bat egiteko-eta.

Zenbat puntu behar dira, eta zenbat batu dituzu zuk orain artean?

Orain arte lau puntu eskatzen zituzten, baina aurten, bost. Beraz, gutxienez bi probatan parte hartu behar duzu bost puntu horiek lortzeko. Hori bai, azkeneko bi urteak ere kontuan hartzen dituzte. Nik Transgrancanaria eginda daukat [lau puntu], eta Los 10.000 del Soplao ere bai. Bestalde, Ehun Milak egiteko asmoa ere badaukat [lau puntu]. Antolatzen ibilita, ia egiterik banuen galdetu nuen, eta baietz esan zidaten. Puntuak badauzkat, sobera. Egia esan mundu honetan dabilenarentzako ez da horren zaila izena ematea. Animatzea da kontua. Orain arte egindako esfortzuari gindatxo bat jartzeko balio du.

Euskal Herriak badu bere ultratraila: Ehun Milak (www.ehunmilak.com). Noiz da, eta zeintzuk ezaugarri izango ditu?

Uztailaren 16, 17 eta 18an da, eta Mont Blancokoaren ezaugarri beretsuak ditu: 167 kilometro [ehun milia], 48 orduan egiteko. Ehun Milak probako desnibel positiboa, hala ere, handiagoa da: 11:500 metro. [Europa osoan Chamonixen antolatzen duten probak eta Euskal Herrian egingo den honek gainditzen dute 160 kilometroko distantzia, eta Ehun Milak da 10.000 metroko desnibela gainditzeko duen bakarra]. Hala ere, ibilbide motza ere izango da aukeran, 88 kilometrokoa. Euskal Herrian eskari handia zegoen halako zerbait egiteko.

Eskari horri erantzuten dio, beraz, Ehun Milak probak. Jendea, denbora eta esfortzu handia behar dira horietako proba bat antolatzeko. Zeinen ideia izan da?

Mont Blancoko ultratraila orain sei bat urte hasi ziren antolatzen frantsesak, eta proba horretan parte hartzen zuten euskaldunen ekimenez sortu da Ehun Milak. Mikel Valdibielsok eta Jon Bikendi beasaindarrak izan dira sustatzaile nagusiak, eta jakina, haien bueltan, mendizale asko batu gara.

Zelan antolatu zarete?

Valdibielsok bazeukan harremana Mont Blancoko probaren antolatzaileekin, eta Bikendi eta biak berotuta etorri ziren handik, hemen ere halako zerbait egin genezakeela sinistuta. Ibilbidea pentsatu zuten lehendabi-

zi, eta gero ibilbide horretan zeuden herrietako mendizale elkarteetara email bana bidali zuten horren berri emateko. Morkaikora ere bidali zuten, eta Morkaikok email hori bazkideei bidali zien. Morkaikok ez du mendiko lasterketen filosofiarekin bat egiten, eta horrenbestez, elkarte moduan ez zuen onartu antolatzaile lanetan aritzea, baina mezua zabaldu zuen eta taldetxo bat batu ginen.

Karakateko Igoera antolatzen du bai!

Bai, Urgazirekin elkarlanean antolatzen du Karakateko Igoera, baina gauza aparteko moduan. Herriko jendeak bultzatutako ekin-tza xume bat bezala hasi zelako gehienbat.

Zein izan da zuen egitekoa?

Elgoibarko zatia motza da oso, hiruzpalau kilometro eskasekoa, eta berez ez dugu lan handirik izan, abituallamientorik ez dagoelako gure ibilbide zatian. Dagokigun zatia markatzea laga dute gure kargu. 18:00etan irte-ten dira Beasaindik, eta 23:00ak aldera hasi-ko dira Irukurutzetik pasatzen. Gauz pasatuko dira, eta beraz, oso garrantzitsua izango da argiak edo islatzaileak jartzea.

Antolatzaileen taldean zaude, baina zuk zeuk ere parte hartuko duzu, ala? Beste elgoibartar edo mendaroarrak izango al da?

Badaukat asmoa, bai. Apirilaren 15ean bukatzen zen izena emateko epea, eta nik da-kidala neu izango naiz bakarra.

Etxeko lasterketa izanda, berezia ere izango da zuretzat, ezta?

Bai, bada. Gipuzkoan jokatzeko da, eta he-

mengo mendi esanguratsuenak pasatzen ditu: Irimo, Izarraitz, Hernio, Aralar, Txindoki, Aizkorri... Proba berezia da, zalantzarik gabe, eta ilusio handiarekin noa. Etxeko lasterketa da, eta guk geuk antolatutakoa. Horrek asko esan nahi du, gauzak antolatzen primerakoa garelako euskaldunak. Hor ditugu estropadak, Euskal Bizikleta zena, Zegama-Aizkorri... nik uste dut mimo handiz hartzen ditugula gauza hauek. Adierazgarria da oso Zegama-Aizkorriren kasua. Izan ere, Munduko Kopako lasterketen egutegian sartzeko baldintzetako bat 2.000 metrotik gora igotea den arren, salbuespen bat egin eta Zegama-Aizkorri egutegi horretan sartu dute, besteak beste antolakuntza sekulakoa izaten delako eta jende asko batzen duelako. Ehun Milak ultratrailaren kasuan, bestalde, adierazgarria da Amezketa kasua ere. 300 biztanle inguruko herria da, eta 80 boluntario batu dira antolakuntzan, herriaren %20.

Elgoibarren zer nolako harrera izan duzue?

Oso ona. Amezketa adina lagun ez ditugu batu, baina gustura gaude. Bildu garenok ilusioz dihardugu, eta Udalak ere lagundu digu. Era berean, Mausitxa txarangakoak ere batu dira itxuraz, eta lasterkariak hemendik pasatzen diren gau horretan Sargoate aldera igoko direla esan digute. Tronpetistaren bat animatzen bada, Irukurutzeta gainean ere joko ei dute, pentsa!

Ainara Argoitia



Edu Uribe, aldapan gora, Aloñako Igoeran. 15,5 kilometroko ibilbidea da, eta 1.100 metroko desnibel positiboa du.

Txernobilgo eta Errusiako sei ume etorri dira uda pasatzera Elgoibarrera eta Mendarora

Ekainaren erdialdera iritsi ziren eta pare bat hilabete egingo dituzte Euskal Herrian

Nikolay eta Esbieta ekainaren 16an iritsi ziren Errusiatik Elgoibarrera. 7 urte ditu Nikolaik, eta estreina-ko aldiz pasatuko ditu oporrak Salloben-terko baserri batean. Marisol Arrillaga eta Josema Almortza senar-emazteak, Alaitz eta Aimar neba-arrebak izango dira Nikolairen udako familia. Ez du asko hitz egiten euskaraz, baina dena ulertzen du: “Berak errusieraz egiten digu, eta guk euskaraz egiten diogu, baina primeran ulertzen gara”, esan du Josemak.

Esbietak 12 urte ditu, eta aurten laugarren urtez etorri da Rosa Vilaren etxera. Neska gazteak primeran hitz egiten du euskaraz, eta Elgoibarrera oso gustura etortzen dela aitortu du. Lagunak ere baditu herrian, eta igerilekura joatea izugarri gustatzen zaio.

Lida, uztailaren 19an

Lida ezaguna da dagoeneko Elgoibarren. Zazpigarren urtez etorriko da aurten lone Ariznabarretaren etxera, baina ohikoa baino beranduago iritsiko da. lonek esandakoaren arabera, Errusiako Gobernuarekin arazoak izan dituzte aurretan, eta azken momentura arte ez zeki-



Nikolay, goian ezkerrean, eta Esbieta, goian eskuman, udaldiko familiakoekin.

ten Lida Elgoibarrera etorriko zen ala ez: “Bai bera eta baita gu ere berriz elkarteko irrikitan gaude. Atzerrian ikasten duen alaba da niretzako Lida”, esan du lonek. Dena ondo irteten bada, uztailaren 19an helduko da 12 urteko neskatila errusiarra gurera.

Nastia, Makcim eta Inna Txernobiletik Mendarora

Eztanda nuklearrak eragindako kal-

teak arintzeko helburuarekin etortzen dira Euskal Herrira Txernobilgo umeak, eta aurten 268 iritsi dira guztira. Horietako hiruk, Nastiak, Makcimek eta Innak, Mendaron pasatuko dute uda.

Nastiak 11 urte ditu, eta bosgarren urtez etorri da Karmen Larrañagaren etxera. “Pozik” etortzen da, eta fruta gorria eta tomatea gustatzen zaizkio batez ere. Karmenek esandakoaren arabera, pare bat astetan nabarmen egiten du hobera Nastia osasun egoerak.

Idurre Arakistainek eta Alex Aranberrik estreinakoz hartu dute etxean 8 urteko Makcim. laz Irunen pasatu zuen uda mutikoak, eta aurten, Mendaron. “Pentsatu eta egin”, esan du Idurrek. Hasierako egunak zailak izan zirela adierazi du: “Umea triste ikusten genuen, eta ez genekien zer zeukan”. Hala ere, esperientzia aberasgarria dela aitortu du.

Innak 9 urte ditu, eta laugarren aldiz etorri da aurten Ainhoa Garroren etxera. 10 urteko Naia alabarekin primeran konpontzen da Ina, eta uda oso ondo pasatzen dute. Zailtasunak zailtasun, oso esperientzia polita dela adierazi du Ainhoak.



Nastia eta Makcim, Mendaroko gurasoekin. Argazkian Inna falta da, oporretan zegoelako.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Nazio bat gara, autodeterminazioa!

Uztailaren 10a Euskal Herriak –kataluniarrek bezala– etorkizuna libreki erabakitzeko duen eskubidearen aldarrikapen eguna bihurtu nahi dute EAK, ezker abertzaleak eta Alternatibak.

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Kataluniako Estatutuaren aurka ebatzi ostean, Bartzelonan *Nosaltres decidim, som una nació* (guk erabakitzen dugu, nazioa gara) lelopean manifestazioa egingo dute larunbatean.

Aldarrikapen horrekin bat eginda, Donostiako kaleak ere autodeterminazio eskubidearen alde betetzera deitu dute, *Nazioa gara. Autodeterminazioa!* lelopean. 17:30ean abiatuko da, Antiguako tuneletik.

Elgoibarko EAK eta Ezker Abertzaleak dei egiten diete abertzale guztiei, erabakitzeko eskubidea zor digutela uste duten guztiei, larunbatean, Donostian egingo den manifestazio horretan parte hartzera, «gure herri eskubideak ukatuak ditugula salatzen, eta gure herriak duen burujabetza beharra aldarrikatzeko»

Autobusa ere izango da, King-kongetik, 16:00etan (Ohiko tokietan izena eman).

Elgoibarko EA eta Ezker Abertzalea

OHARRA

Datorren ostiralean, uztailaren 16an, argitaratuko dugu oporren aurreko azken alea. Zorion agurretarako edo merkatu txikirako mezuak asteazken eguerdira arte jasoko ditugu. Hurrengo alea San Bartolome jaietan jasoko duzue, abuztuaren 23an.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Unai
Arrieta

Zer moduz doakizu opor garaia, Zuhaitz? Azkenekoz gure irakurleei txorkatilan izan zenuen bihurrituaz hitz egin zenien. Osatu zara? Ez zaizu batere gaizki etorriko



Zuhaitz
Gurrutxaga

opor garai hau txorkatila hori berriz ere lehengoratzeko eta denboraldi osoan zehar galdutako indarrak berreskuratzen. Gertutik jarraitu zaitut, bai, eta badakit zeinen gogorra izan duzuen denboraldia.

“Txapelketaren osteko opor garai hau gustura hartzen dut beti, Zuhaitz”

Txapelketaren osteko opor garai hau gustura hartzen dut beti, Zuhaitz. Denboraldiko errutinarekin eten eta eskubaloia pixka bat alboratzen saiatzen naiz. Askotan lehiaketaren ondorengo oporraldia, atsedean garai bat izateaz gain, trantsizio garai bat ere izaten da guretzat. Denboraldian zehar egindako jokoa eta izandako maila aztertu, balioetsi eta erabakia hartzeko unea izaten da. Sarritan gure kirol etorkizunaren inguruko erabaki garrantzitsuak hartu behar izaten ditugu. Batzutan, etxearen zimentuak gehiegi mugitu gabe talde berean jarraitzeko apustua egiten dugu. Besteetan, ordea, aldatzeko erabakia hartzen dugu, maletak hartu eta beste bide batzuei ekiten diegu.

Langabeziak itota eta irentsita dagoen langilegoa eta gizartea halako trantsizio egoera batean ikusten dut aspaldian, zirt edo zart erabakiren bat hartu beharrean. Kapitalismo globalizatzaile eta espekulatzailen honen ur-lasterrek zuzen-zuzenean ur-jauzira garamatzen honetan, jarrera epeleki eutsi edota behingoz egoera honekin sustraietatik hautsi.

Zer erabaki duzu datorren denboraldirako? Non izango zaitugu? Nik talde berean jarraituko dut, garai zail eta zalapartatsu hauetan urak bare Logroño aldean. Eta ez da gutxi.


Kaixo, Unai! Pasatu dira jada bi hilabete txorkatilan aberia egin nuenetik, eta guztiz ondo dagoenaren ustea daukat. Ustea diot, zuk esan bezala, oporretan daramatzadalako azken bi asteok, eta ez dudalako larregi behartu txorkatila. Horren ados nago opor garaian deskantsatzearekin, Unai, ez dudala egunotan oin bat bestea baino bizzorrago mugitu. Hamaika hilabete zehar, egunean zortzi ordu lo egin behar izaten ditugu, pasta eta arroza izaten dira gure dietaren oinarri eta, astebururo, azterketa gogor bat pasa behar izaten dugu. Lanordu laburra izan arren, lotura estua eskatzen du gure ogibideak. Hori hala izanik, niretzat opor garaia sakratua da. Jan eta edan gogotik, gaua eguna baino gehiago maitez, eta jakina, kirolik, eta batez ere futbolic, praktikatzeko batere gogorik gabe. Hala bizi ditut nik uda garaioak.

“Topera disfrutatzeko asmoa daukat. Ez baloirik erakutsi niri uztail erdira arte”

Egia da, baita ere, Unai, badugula nomada izaera ere, urteroz azken ordura arte ez dugulako jakiten maletak egin edo ez. Beti izan dut gustuko egoera berezi hau. Nora eramango ote gaitu destinoak? Penintsulan ezagutu ditut goi, behe, eta erdiko parajeak. Non izango ote dut hurrengo biziak? Adinean gora joan ahala, gehiago lotzen nau gure lur maiteak, baina oraindik badut lanaren aitzakian leku ezezagunak arakatzeko asmoa. Badut oraindik datorren denboraldiari begira zalantzak uxatzeko astirik. Bitartean, opor egunak topera disfrutatzeko asmoa daukat. Ez baloirik erakutsi niri uztail erdira arte, Unai!



Elgoibarko Udala



Uztailaren 6an hasi ziren Iruñeko San Fermin jaiak, eta hilaren 14an amaituko dira.

Badakazu sanferminetako entzierroak ikusteko ohiturarik?



Paula Almeida
36 urte, delineatzailea

Bai, egunero jaikitzen naiz. Izugarri gustatzen zait entzierroa zuzenean ikustea. Lanera joaten nintzeanean irratian entzuten nuen zuzenean. Gero telebista kate guztietan errepikatzen dute, eta nekatu egiten nau. Niretzako askoz politagoa da goizean ikustea.



Asier Orbea
41 urte, kazetaria

Ez daukat ohiturarik. Niri gehiago gustatzen zait lo egitea. Gero parean tokatzen bazait ikusten dut, baina bila ez naiz joaten. Zezena zelaian ikustea gustatzen zait, eta ordu erdi egon naiteke hari begira, baina zezenketak eta entzierroak ez ditut gustuko.



Luis Mari Galarraga
59 urte, jubilatua

Bai, jubilatuta nago, eta egunero jaikitzen naiz entzierroa ikusteko. Nire ustez, zuzenean ikusi behar da. Zezenzalea naiz oso, eta sanbartolomeetan sokamuturraren aurrean ibili izan naiz gaztetan, baina sanferminetako zezenen aurrera irteten ez nintzateke ausartuko.



Simone Souza
38 urte, irakaslea

Gustatzen zait entzierroa ikustea, baina ez naiz goizean goiz jaikitzen. Nolako entzierroa izan den jakitea gustatzen zait, eta errepikapena ikusten dut horretarako. Sanferminetan ere izanda nago. Hura izan zen euskarekin izan nuen lehenengo harremana. Izugarri gustatu zitzaidan.

Lanbroa

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia · Estetika · Solarium-a

Idama

Ekaineko irabazlea:
ELENA EGUREN

Uztaileko saria:
ILERAKO PLANTXAK

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26



Errotaberi kalean txakur kaka asko egoten dira: “Lotsagarria da! Herritar pila batek Errotaberi kalean dagoen berdegune txiki batera eramaten dituzte txakurrak kaka egitera, eta dena kakaz beteta egoten da. Txakur jabe horiei errespetu apur bat eskatu nahi diet, baina Udalak ere gai honetan neurriak hartu behar dituela iruditzen zait. Herri askotan plastikozko poltsak jartzen dituzte toki estrategikoetan, eta, Deban, esate baterako, isunak jartzen hasi dira. Zerbait egin beharra dago”.



Mintxetako igerilekuetan sorosle bakarria egoten da: “Mintxetako aire libreko igerilekuak oso ondo daude, baina sorosle bakarria egoten da, eta gutxi dela iruditzen zaigu. Arratsaldetan jende asko egoten da, eta sorosleak bi igerileku zaindu behar ditu. Gainera, pertsona bera egoten da egun osoan, eta gure ustez, langilearentzat eta baita erabiltzaileentzat ere, bi sorosle egotea hobea litzateke. Beste urte batzuetan bi sorosle egon izan dira. Ezer gertatu aurretik hartu behar dira neurriak. Mila esker”.

Sallobentera bidean sugeak daude: “Aste honetan bi egunetan irten zaizkigu sugeak bidera. Egunero joaten gara Sallobentera paseatzera, eta sekulako sustua hartu dugu. Ez dakigu pozointsuak diren edo ez, baina zerbait egin behar dela iruditzen zaigu. Belarra oso luze dago, eta, agian, apur bat moztea izan daiteke irtenbidea”.



Txalo bero bat Aitzolako jubilatuen egoitzakoei sardina jana antolatzea-gatik: “Urtero bezala, sardina jana eginez bukatu ditugu San Juan jaiak Aitzolako jubilatuen egoitzan, eta primeran pasatu dugu. Aurtan, gainera, Elgoibarko jubilatuen egoitzako presidentea eta idazkaria izan dira gure artean. Dena oso ondo irten da, eta jaiak amaitzeko modu ezinhobea izan da”.



Txalo bero bat Maria Escobedori, hip-hop eta breakdance erakustaldia antolatzeagatik: “Joan zen zapatuan hip-hop eta breakdance ikastaroa eta erakustaldia izan ziren kiroldegian, eta eskerrak eman nahi dizkiogu antolatzaileari. Era berean, ekitaldian parte hartu zuten guztiei ere txalo bero bat, denon artean primeran pasatu genuelako. Oso giro ona izan zen, eta espero dugu berriro errepikatzea”.



Urrian zozketatuko dituzte Urruzunoko etxeak

70 etxebizitza zozketatu dituzte



Urruzunoko 70 etxebizitzak urriaren erdialdera zozketatuko dituztela aurreratu du Alfredo Etxeberria alkateak. Zozketan parte hartzeko mila eskaera jaso zituzten, eta horietatik 747 ez dituzte onartu. Hortaz, 253 lagun sartuko dira 70 etxebizitzaren zozketan. Onartutako eskarien artean, 164 eskari 25 eta 35 urte bitarteko adinekoentzako zozketan sartuko dira. Horientzako 57 etxebizitza egongo dira. Gainerako 89 eskaeren artean, berriz, beste hamar etxebizitza zozketatuko dituzte. Azkenik, hiru etxebizitza ezinduentzako izango dira, eta beste bat familia bat lekuz aldatzeko erabiliko dute.

Etxebidek argitaratu ditu dagoeneko onartutako eta baztertu-tako eskaeren zerrendak, eta errekursoak aurkezteko epea uzta-laren 28an amaitzen da. Horri buruzko informazioa www.etxebide.info webgunean daukazue.

Elgoibarko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu dute Urruzunoko babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa Etxebidek egin dezan, Udalak ezarritako irizpideak aintzat hartuz be-tiere. Kontuan hartuko diren eskabideak 2009ko abenduaren 31ra arte Etxebiden erregistratutakoak izango dira. Diru sarrerei dagokienez, urteko 9.000 eta 35.000 euro bitarteko sarrera du-tenak sartuko dira zozketan.

Gaueko larrialdi zerbitzua berriz irekitzeko eskatu du Udalak

Osasun Zentroko gaueko larrialdi zerbitzua berriz mantxan jartzeko mozioa aurkeztu zuen EAK osoko bilkuran, eta alderdi politiko guztiek alde bozkatu zu-ten.

Ekainaren 19an kendu zuen Osakidetzak gauer-ditik aurrerako larrialdi zerbitzua, eta ordutik, 8:00etatik 00:00etara gertatzen diren larrialdiak soilik hartzen dituzte Elgoibarko Osasun zentroan. Ondo-rioz, gauez larrialdiren bat izanez gero, Eibarko anbu-lategira edo Mendaroko Ospitalera joan behar dute elgoibartarrek.

Gauerdiko larrialdi zerbitzua berriz martxan jar-tzearen alde sinadurak biltzen jardun zuen Elgoibar-ko Eusko Alkartasunak, eta, guztira 2.023 herritarren sinadura bildu zituen.

Altzolako bi etxebizitza enkantean jarriko ditu Udalak



Altzolako bi etxebizitza enkantera atera ditu Elgoi-barko Udalak, subasta bidez. Karmen Enparantzako 3. zenbakian (4. eskuina) dago lehenengo etxea, eta gu-txieneko prezioa 105.780 eurokoa izango da. Beste etxea Karmen Enparantzako 5. zenbakian (1. eskuina) dago, eta gutxieneko prezioa 102.895 eurokoa izango da. Dokumentazioa eta informazio gehiago nahi izanez gero, Udalaren arreta bulegoan galdetu dezakezue (Santa Ana kalea, 2) edo 943 741 050 telefonora deitu.

Lekua **Usuako iturria**



Usuako parkean dagoen iturria kendu eta haren lekuan 8 urtera arteko umeentzako jolas parkea egingo du Udalak. Dagoeneko hasi dira lanean, eta uztailaren amaiera alderako amaituko dituzte lanak. 2006ko abenduaren 3an, San Bartolome parrokia aurreko zaharberritze lanak egin zituzten garai berean, inauguratu zuten Usuako iturria. Argi deigarriak zituen iturri berriak, baina aspaldian gutxitan egon da funtzionatzen. Zikinkeriaz beterik egoten zen, eta herritar asko kezkatzen zen umeentzako iturri arriskutsua zela arrazoituz. Horiek izan dira, bereziki, iturria kentzea erabaki izanaren arrazoiak. Era berean, Madalako eta Plaza Handiko iturriak ere berrituko dituztela adierazi du Alfredo Etxeberria alkateak.

Irudia **Pintxo lehiaketako irabazleak**

Joan zen barixakuan pintxo irabazleak doan dastatzeko aukera izan zuten Plaza Handira gerturatu zirenek, eta ez ziren gutxi izan. Txarridunak irabazi du bigarren urtez epaimahaiaren saria, eta Lojantziko pintxoa izan da herritarrei gehien gustatu zaiena. 5.400 lagunek hartu zuten parte pintxoei nota jartzeko bozketan. Horien artean Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastatze menua zozketatu zuten, eta Nagore Lasuen izan da sariduna.



Artzaintzaren ekomuseora eta burdinoletera irteera

Artzaintzaren ekomuseora eta Mirandaola burdinolara irteera antolatu du Zubibai elkarteak domekarako. XVI. mendeko Erraizabal baserria bisitatuko dute goizean artzaintzaren inguruko bizimodua ezagutzeko. Arratsaldean, berriz, XIV. mendeko Mirandaola burdinolara joango dira, eta garai hartako errementariak burdina nola lantzen zuten ikusiko dute. 10:00etan elkartuko dira Altzolako iturrian, eta bidaia autoz egingo dute. Joan nahi duen orok bere bazkaria eraman beharko du.

Santanderre irteera uztailaren 22an

Jubilatuaren Egoitzak Santanderre irteera antolatu du uztailaren 22rako. Eguerdian Islas herrira joango dira, eta han bazkalduko dute. Jubilatuen Egoitzako bazkideek 28 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 31 euro. Interesatuak egoitzan bertan eman dezakete izena.

Hastear dira kiroldegia eta anbulategia lotuko dituen igogailua jartzeko obrak

Olaizaga kiroldegiaren eta anbulategiaren artean igogailua jartzeko lanak hastear daude. Udalak dagoeneko esleitu ditu obrak, eta arduradunek esandakoaren arabera, bost hilabeteko epean amaituko dituzte lanak. Proiektuaren aurrekontua 423.489,62 eurokoa izango da.

Udaltzain postu bat betetzeko deialdi publikoa

Elgoibarko Udalak udaltzain postu bat betetzeko deialdi publikoa egin du, eta lehiaketa-oposaketa bidez egingo du aukeraketa. Interesatuak Udaleko arreta bulegoan jaso dezakete informazio gehiago (Santa Ana kalea, 2) edo 943 741 050 telefono zenbakira deituta.

Euriak ez zituen zapuztu Idotorbeko jaiak

Motoak, umeentzako jolasak eta idi demak izan dira, besteak beste, asteburuan



Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, ekitaldiz beteriko asteburua izan zuten Idotorbe-San Pedroko jaietan. Skull Rider's taldekoek moto kontzentrazioa antolatu zuten zapaturako, baina euria zela-eta, moto gutxi agertu ziren Idotorbera. Hala ere, ez zen festa girorik falta izan, eta umeentzako jolasaetan, gisatu dastaketan eta gizon probak ikusten jende asko izan zen. Domekan, bestalde, idi probak izan ziren ekitaldi nagusia. Motoaren zozketako zenbaki saritua 1.355 izan da. Argazki gehiago ikusteko www.elgoiBAREN.net.

San Fermin Txiki eguna ospatu zuten etxeko txikiek eguaztenean



Atxutxiamaiak antolatuta, San Fermin Txiki eguna ospatu zuten eguaztenean etxeko txikiek. Ume guztiak zuri-gorritz jantzita irten ziren kalera uztailaren 7an, eta Elgoibarko kaleek Iruñakoen itxura hartu zuten. Pregoia irakurri zuten lehenik, eta ondoren, entzierroa egin zuten. Iruñeko jaietan bezala, zezenen aurretik egin zuten saltaka ume ausartenek. Entzierroa amaitu zenean, poneyak atera zituzten Plaza Handian, eta zaldi txikien gainean ibili ziren ume mordoska bat. Zezenak eta zaldiak gustuko ez zituztenentzat, berriz, gaztelu puzgarriak jarri zituzten. Indarrak berreskuratzeko txorizo pintxoak banatu zituzten ekitaldiak amaitu zirenean.

Bandera berria estreinatu zuen Udal Musika Bandak 125. urteurreneko ospakizunen artean

Pello Arrietak bandaren historiari buruzko liburua aurkeztu zuen

Udal Musika Bandak 125. urteurrena ospatu zuen asteburuan, eta ospakizuneko ekitaldien artean, bandera berria estreinatu zuten. Meza berezia izan zen zapatuan, eta Benantzio Otaegi parrokoak bedeinkatu zuen bandera. Bandako kideek zenbait kanta jo zituzten mezatan eta parroko abesbatzak eta Udal Txistulari Taldeko kideek ere parte hartu zuten, elkarrekin estreinakoz. Meza ondoren, bandari eskainitako aureskua dantzatu zuten Haritz Euskal Dantzari taldeko dantzari Plaza Handian, eta aureskuaren ostean Udalbatzak harrera ofiziala egin zion bandari, Pleno aretoan.



Alfredo Etxeberriak bandera berria eman zion Jose Antonio Osoro zuzendariari.

125 urteko historiari buruzko liburua

Pello Arrieta irakasle eta historialari elgoibartarrak Udal Musika Bandaren historiari buruzko liburua aurkeztu zuen zapatu eguerdian. Alfredo Etxeberria alkatea, Jose Antonio Osoro Udal musika Bandako zuzendaria eta Jesus Mari Astigarraga Danobat enpresako presidentea ere hartu zuten parte aurkezpen ekitaldian. Pello Arrietak eginiko lana eskertu eta goraiatu zuten guztiek, eta esker ona adierazteko, urrezko intsignia jarri zioten historialariari.

Urteurreneko ekitaldiak domekan bukatu ziren, Musika Bandaren kalejira eta kontzertuarekin.



Jose Antonio Osoro, Alfredo Etxeberria, Pello Arrieta, Julian Iriondo eta Jesus Mari Astigarraga liburua aurkezpenean.

Jendetza handia batu zen Etxaok Potroik taldearen estreinako kontzertuan



Etxaok Potroik talde mendarorarrak estreinako kontzertua eskaini zuen joan zen barixakuan gaztetxean, eta jendetza handia batu zen. Rock estiloko musika egiten dute, eta talde ezagunen kanten bertsioak egiten dituzte. Aurretik, Mendaroko Tempestades taldearen kontzertua egon zen, giroa berotzeko eta bi taldeen artean dantzan jarri zuen Mendaroko gaztetxea.

Alpeetako La Marmotte zikloturista proba entzutetsuan parte hartu dute lau elgoibartarrek

174 kilometro ditu ibilbideak, eta 5.000 metroko desnibela

Europako zikloturista proba gogorrenetakoa dela diote aldizkari espezializatuek, eta perfilarri begiratuta, ezin esan, ez, xamurra denik. 174 kilometroko lasterketa da La Marmotte, 5.000 metroko desnibela du, eta lau mendate ezagun igotzen dituzte txirindulariek: Glandon, Col du Telegraphe, Galibier eta Alpe D'huez. Hala ere, ehunka zikloturista batzen ditu urtero. Aurten, lau elgoibartar ere izan dira La Marmotteko tropel handian: Ion eta Oier Irazabal anaia, Alberto Seijas eta Carlos Rodriguez.

“Quebrantahuesos proba egin nahi genuen, baina ez genuen izena ematerik lortu, eta La Marmotten saiatzearabaki genuen”, dio Ion Irazabalek. Pentsatu eta egin. Eguenean irten ziren Elgoibartik, lasterketa bezperan lasai hartu eta bizikleta gainean hankak luzatzeko aukera izateko. Bizikletan asko ibiliak dira laurak, eta hemen inguruko makina bat martxatan parte hartu dute, entrenatze aldera. Irazabal anaiek eta Seijasek 3.500na kilometro inguru pilatu dituzte aurten, eta Rodriguezek, berriz, 7.000 kilometroren bueltan, baina hala ere, errespetu handia zioten proba honi. Zapatuan hala ere, mundu bat irten zen errepidera, haiekin batera: “40 nazionalitateko 8.000 bat lagun”. Gogotik sufritu zuten, baina baita gozatu ere. “Esperientzia ikaragarria izan da. Sekulako satisfazioa izan da bukatzea”. Carlos Rodriguez izan zen elgoibartarren artean azka-



Ion Irazabal, Oier Irazabal, Alberto Seijas eta Carlos Rodriguez.

rena (7:35:15). Haren ondoren, Oier eta Ion Irazabal helmugaratu ziren, elkarrekin (9:40:00), eta hogeita sei minutu eskasera sartu zen Alberto Seijas (10:06:00).

Gredosen izan dira Haizea emakume taldekoak



Haizea emakume taldekoak Gredostik itzuli berri dira. Gredosera joaten diren mendizale gehienek Almanzor mendia izaten dute begiz jota (2.592 metro), Gredoseko zein Sistema Zentraleko gailurrik garaiena delako, baina elur gehiegi zegoela-eta, beste bi mendi igotzea erabaki zuen emakume talde honek. Lehenengo egunean, Cabeza Nevada (2.433 m.) igo zuten taldeko bost lagunek, eta hurrengo egunean, Morezongo (2.394 m.) gailurra zapaldu zuten hamabi emakumeek, argazkian ikus daitekeen bezala.

Realak Mintxetan jokatu du denboraldi aurreko lehenengo partida


Lehen Mailara igo osteko ospakizunak amaituta, oporretan dira orain Realeko jokalaria, baina laster itzuliko dira berriz lanera. Izan ere, uztailaren 30ean jokatu dute txuri-urdinek denboraldi aurreko lehenengo partida Haundiren kontra, Elgoibarren, Mintxetako futbol zelaian. 19:00etan hasiko da norgehiagoka hori, eta ondoren, abuztuko lehen astean, atzerriera joango da Reala, prestaketekin jarraitzeko.

Markel Bergara, Gaztelekuan

Markel Bergarak Gaztelekuak antolatzen dituen gazte tertulietan parte hartuko du uztailaren 14an. 19:00etan hasiko dira tertulia horiek, eta Gaztelekura hurbiltzen diren gazteek nahi beste galdera egiteko aukera izango dute Realeko futbolari elgoibartarrari.

Gaur zortzi, hilaren 16an, Elgoibartik pasatuko dira Ehun Milak ultratrailean izena emandako lasterkariak

167 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, eta 11.500 metroko desnibela gainditu



Uztailaren 16an hasiko da Beasainen Ehun Milak (www.ehunmilak.com), Euskal Herriko mendi lasterketarik gogorrena, eta egun berean, 22:00etatik aurrera, Elgoibartik pasatuko dira antxitxikariak, 300 bat inguru. Korralariak 48 ordu izango dituzte 167 kilometroko ibilbidea egiteko, eta 11.500 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute. Europa osoan Chamonixen antolatzen den probak — Mont Blanceko The North Face ultratrailak— eta Euskal Herrian estreinakoz egingo den Ehun Milak probak gainditzeko du-

te 160 kilometroko distantzia, eta Ehun Milak da 10.000 metroko desnibela gainditzeko duen ultratrail bakarra.

Lasterketa Euskal Herriko igaroko da oso-osoan, zehazki Gipuzkoako lurralde historikotik, eta mendiz zeharkatuko ditu Goierri, Tolosaldea, Urola Kosta eta Urola Garaia eskualdeak. Bidean mendi esanguratsuenak igaroko dituzte: Txindoki (1.346), Ganbo (1.402), Aizkorri (1.528), Erlo (1.026), Izaspi (967) eta Hernio (1.075). Elgoibarrera, Bergaratik barrena sartuko dira, Elosu aldetik. Irukurutzetatik barrena

Otsaurtiatik pasatu eta Azkaratera jaitsiko dira gero, handik Urnoblitzara igotzeko. Ondoren, Madariaga eta Erlo aldera juango dira. Otsaurtian, Elgoibarko Mendi Itzulian lehenengo abituallamietoa egoten den lekuan, 40. kilometroa beteko dute parte hartzaileek, eta handik aurrera beste 127 egin beharko dituzte. Elgoibarren antolakuntza lanetan ibili direnek trikiti festa antolatuko dute Otsaurtian, lasterketan parte hartzen ari direnei ongi etorria egin, eta animatzera joandakoen gaua girotze aldera. Giro ona, beraz, ziurtatuta dago.

Maite Maiora mendarorak hirugarren egin du Azpeitiko kilometro bertikalean

Euskal Herriko kilometro bertikalen kopako hirugarren proba jokatu zen domekan, Azpeitian: Xoxoteko Zuzenien bertikala. Azpeititik bertatik abiatzen dira korrikalariak, eta Xoxoteko aterpetxe parean amaitzen dute. 3,2 kilometroko ibilbidea da, eta 804 metroko desnibela gainditu behar izaten dute antxitxikariak.

Elgoibartik eta Mendarotik sei lagunek parte hartu zuten Zuzenien proban, eta garaikur batekin bueltatu ziren etxera, Maite Maiora mendarorak lortutakoarekin. Maiorak hirugarren egin zuen emakumezkoetan, 38:58ko denbora eginda.

Gainerako ordezkariak ere fin aritu ziren, hala ere. Gizonezkoetan, Haritz Arrieta izan zen elgoibartarren artean bizkorrena. 11. postuan sailkatu zen Arrieta (32:36), eta Iñigo Lariz izan zen haren hurrengo azkarrena. 13. egin zuen Larizek, 33:14ko denborarekin. Kilometro bertikalen kopan lehenengo hamarren artean daude biak: seigarrena da Iñigo Lariz, eta zortzigarrena, Haritz Arrieta.

Elgoibartik joandako beste hiru ordezkariak ere maila txukuna erakutsi zuten. 86. sailkatu zen Asier Arrieta (41:12) eta 95. postuan helmugaratu zen Arkaitz Irureta (43:21). Javier Fernandez de la Lama 102. egin zuen, 45:03ko denborarekin.



Asier Arrieta, Iñigo Lariz, Arkaitz Irureta, Maite Maiora eta Haritz Arrieta. Javier Fernandez de la Lama falta da argazki honetan.

LANA

ESKAERA

- Gizonezkoa lanerako prest. Nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako...
☎ 616 260 793
- Gizonezkoa lanerako prest. Nagusiak zaintzeko edo igeltsero laguntzaile, banatzaile, sukaldari laguntzaile lanak egiteko.
☎ 638 344 377
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan.
☎ 678 972 690
- Neska lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak... Papelak dauzkat.
☎ 662 247 584
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest.
☎ 633 517 236

- 35 urteko emakumea edozein lan egiteko prest.
☎ 666 781 401
- Emakumea lanerako prest. Interna bezala edo orduka.
☎ 628 014 327

ESKAITZA

- Esperientziadun ileapaintzailea behar da. 1. mailako ofiziala.
☎ 943 530 000
- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira.
☎ 943 743 196

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa). Erdigunean. Prezio onean.
☎ 941 341 437 / 676 882 373 (Esther)

- Etxea salgai Mendaron. Mendarozabal plazan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela.
☎ 943 033 493

GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut udaletxe aldamenean.
☎ 628 764 686

BESTELAKOAK

- Tabernarako tresneria salgai. Berria eta prezio onean.
☎ 687 077 398
- Belarritakoa galdu dut tren geltoki inguruan. Perla urdina dauka, eta brillanteak.
☎ 676 889 260

Badatoz
San Bartolomeak !!!

Publizitatea jartzeko:
943 743 704



ZORIONAK ZURI

OSPAKIZUNAK URTEBETETZEA



Zorionak, **Irene, Elene eta Garazi** zuen bigarren urtebetetzean! Ondo pasat! Familiakoen partez.

OSPAKIZUNAK EZKONTZA



Egun batean ezagutu ginen, eta momentu bereziak pasatu ditugu elkarrekin. Orain egun zoragarri bat iritsi da, eta zuen alboan egoteko zortea daukagu. On-do-ondo pasa eta zoriontsu izan! Muxu handi bat **Monika, Roberto** eta, bereziki, **Dunaren** partez.



• Zorionak, **Manar**, atzo 9 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Macarena**, 6 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Aimar!** Dagoeneko 5 urte! Muxu handi bat etxekoan, eta, bereziki, Alaitzen eta Nikolayren partez.



• Zorionak, **Gorka**, atzo 6 urte egin zenituelako. Muxu asko etxekoan, eta, bereziki, Anderren partez.



• Zorionak, **Mikel**, bihar 12 urte egingo dituzulako. Familiakoan, eta, bereziki, Nerearen partez.



• Zorionak, **Aroa**, atzo 10 urte egin zenituelako. Familiakoan, eta, bereziki, Maialenen partez.



• Zorionak, **Maddi**, zure bigarren urtebetetzean! Oso ondo pasatu genuen, ezta? Familiakoek, eta bereziki, aitatxok eta amatxok.



• Zorionak, **Eneko**, atzoko partez. Oso ondo ospatu genuen zure eguna. Eskerririk asko!



• Zorionak, **Ibon**, hilaren 11n 4 urte egingo dituzulako. Gurasoen, eta Landerren partez. Ondo pasat!



• Zorionak, **Eneko**, bihar 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez. Ondo pasa, txapeldun!



• Zorionak, eta zortzi muxu handi gure etxeko **erregiharrentzat**. Ondo pasa igandean! Familiakoan partez.



• Zorionak, **Mara!** Etxekoan, eta bereziki, Nahia eta Eleneren partez.



• Zorionak, **bikote!** A ze para! Uztailean 2 eta 3 urte betetzean, muxu potolo pila bat! Familiakoan eta koardrilakoan partez.



• 8 x 2, zorionak gure **bikoteari!**




• Zorionak, **Naroa eta Hodei etorri berriari!** Familiako guztien partez.



• Zorionak, **printzesal** 10 urte! puuuuff!! Familiako guztien partez.

Erretratu bakarrekog agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.
Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



ELGOIBAR IKASTOLAK LANPOSTUAK BETETZEKO ONDORENGO TITULAZIOAK BEHAR DITU

- Gizarte Integrazioko Goi Teknikaria edo Haur Hezkuntza (Erref: Teknikaria)
- LMHko Irakaslea: Atzerriko Hizkuntzan espezialitatea (Erref: Irakaslea)

Interesatuak bidali C.V.a elgoibar@ikastola.net helbidera, mezuanen gaitan argi adieraziz lanpostuaren erreferentzia. CV jasatzeko epea uztailaren 13an eguerdiko 12etan bukatuko da.

OKINDEGIA

11 domeka BOLINTXO

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 9 Etxeberria (Errosario)
- 10 Ibañez
- Goizez, Etxeberria (Errosario)
- 11 Ibañez
- 12 Garitaonandia
- 13 Etxeberria (Errosario)
- 14 Zabaleta
- 15 Yudego
- 16 Garitaonandia

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebaren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik
www.elgoiBARREN.net



«500 días juntos»

9, barixakua: 22:30

«Spanish movie»

10, zapatua: 22:30

10 zapatua

Kizola

10:30 Tenis txapelketako finala

Imanol Argueso eibartarrak eta Markel Aranberri debarrak jokatuko dute 40-15 tenis elkarteak antolatutako tenis txapelketako finala. Mintxetan

Xakea

16:15 Xake taldeen eskal zirkuitua

Zubi Ondo Xake taldeak antolatuta, Lerun jatetxean.

Erakustaldia

18:00 Auto erakustaldia

Mendaroko Udalak eta Avar-Ez-tanda elkarteak antolatuta, radiocontrol auto erakustaldia egingo dute. Ikastolako jolastokian.

11 domeka

Irteera

10:00 Artzaintzaren ekomuseoa eta burdinola

Zubibai elkarteak antolatuta. Iturrian batuko dira egunpasa joateko.

16 barixakua

Shun Milak

22:00 Ultratrail lasterketari ongietorria

Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta, trikitifesta izango da Otsaurtian.



GAZTELEKUKO EKINTZAK

UZTAILAREN 16AN
ITZULIKO GARA
UDALEKUETATIK,
HONDARTZARA
JOATEKO. GUREKIN
ETORRI NAHI
DUZUENOK AGERTU
15:00ETAN
GAZTELEKUAN



LUDETEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 9

Ludoteka zerbitzua Mintxetan 15:30

ASTELEHENA 12

Ur jolasak 16:00

MARTITZENA 13

Azpeitira irteera 15:00

EGUAZTENA 14

Mintxetara irteera 16:00

EGUENA 15

Gamarrara irteera 10:00

AEB, 2009. Zuz.: Marc Webb.
Akt.: Joseph Gordon-Levitt, Zooey Deschanel, Geoffrey Arend, Chloe Grace Moretz, Matthew Gray Gubler. 95 min.

Mutiko gazte bat neska batekin maiteminduko da, baina, zoritxarrez, neskak ez du sinesten maitasunean. Komedia erromantikoa.

Ekainean...

JAIOTAKOAK



Jon Trebiño
Agirregomezkorta
Ekainak 1
Aitor eta Oihana




Maddi eta Haizea Egafia Ovejero
Ekainak 4
Unai eta Amaia



Hodei Neu Garcia
Ekainak 21
Ainara eta Neu



Oier Juaristi Camarzana
Ekainak 22
Aitor eta Emma



Unax Diez Astigarraga
Ekainak 25
Jose Luis eta Ainara



Aner Taboada Sarmiento
Ekainak 27
Javi eta Lidia



Joussief Boutrasseyt
Ekainak 2
Rida eta Nadia

Salim Abida
Ekainak 11
Mostafa eta Soukaina

Lier Ulibarri Tellebxa
Ekainak 16
Ion eta Eider

Lis-Amaia Figueroa Ramirez
Ekainak 24
Pedro eta Liliana



Sara Etxeberria Rivero
Ekainak 4
Jagoba eta Onintza

Hilba Ed-Dabbat
Ekainak 13
Cherkaoui eta Fatima

Leire Gonzalez Reche
Ekainak 19
Antonio eta Concepcion

EZKONDUTAKOAK

- Egoitz Gurrutxaga eta Miren Galdona Ekainak 12
- Kaiet Castro eta Maria Aldazabal Ekainak 19
- Eduardo Molina eta Olatz Larrañaga Ekainak 25
- Alejandro Senra eta Maria Dolores Jorin Ekainak 25

HILDAKOAK

- Claudia Lecea Ibañez • 92 urte • Ekainak 2
- Clara Arginberri Elorriaga • 85 urte • Ekainak 2
- Piedad Madariaga Laskurain • 81 urte • Ekainak 6
- Nicolas Prieto Sanchez • 85 urte • Ekainak 8
- Jose Gamiz Cobos • 55 urte • Ekainak 16
- Fermin Arrieta Etxabe • 85 urte • Ekainak 16
- Jose Azkoitia Iriondo • 86 urte • Ekainak 23
- Jose Morcillo Romero • 89 urte • Ekainak 25
- Jesus Ulacia Mallea • 78 urte • Ekainak 27
- Vicente Elkoro-iribe Gurrutxaga • 81 urte • Ekainak 28

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekua) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua BARREneko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

Erretratu zaharra



1985

Aste honetako erretratu zaharra *Txanpi*k laga digu. 1985. urteko inauterietan Urasandiko Aita Agirre ikastetxean ateratako erretratu da. Orduan ere moztarro dotoreak janzten zituzten umeek, eta gaur egun bezala, pailazo jantzia zen estimatuena. Ez da erraza argazki honetan jendea ezagutzea, baina gogora ditzagun izenak:

Atzeko ilaran, zutik: Miguel Angel (irakaslea), Sebas (irakaslea), Marta Duque, Maria Alayo, Willie (irakaslea), Luisa Barros, Aurori Aizpurua, Abel Guerra (atzean), Mariano Lopez, Antonio Ortega, Begoña Martin, Santi (irakaslea), Ana Caballero, Olga Barros, Lucas Fernandez eta Txanpi.

Behean, ezkerretik eskumara: Javi (irakaslea), Susana Bellota, Elena Garcia, Nekane Egaña, Anabel Saiz, Montse Seijas, Tere Muñoz, Sonia Zambrano eta Manu Egea.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Jose Angel Zabala

MAHASTI

*Urdaitegia
eta
ardandegia*

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

Orain **120€** arte aurreztu ditzakezu hurrengo erosketarako.



Uztailaren 8tik 21era arte, Urola EROSKI Hipermerkatuan, "Doaneko produktuak" aukeratzen badituzu, kutxatik pasatzerakoan, beharpen bale bat emango dizugu produktu horiengatik ordaindu duzun zenbatekoaren ordainetan.

Adierazitako Produktua bilatu!

Eta 2010eko uztailaren 22tik abuztuaren 11ra arte egiten duzun hurrengo erosketan, zuzenean zenbateko hori deskontatuko zaizu ordainketatik. Erraza benetan!



*Produktu bakoitzetik ale bat deskontatuko da eta beharpena 120 eurokoa izango da gehienez ere. Hurrengo erosketan baleak trukatu ahal izateko, gutxieneko erosketa zenbateko bat eskatuko da, txartel bakoitzaren zenbatekoaren arabera. 4 sustapen txartel truka daitezke gehienez erosketa bakoitzean.



EROSKI

UROLA

zurekin



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Bach loreak, P.N.L., janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Familia konstelazio tailerrak. Quantum scio (alergiak...). Naturopata eta makrobiotika kontsultak ordua aurrez hartuta. San Bartolome, 29 - Tel: 943 744 031 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (ldoia) - 685 722 131 Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

Pakene Ongizate Integraleko Zentru Berria

(Azterketa biologikoa eta osteopatikoa, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarrak, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasanezintasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) Tel.: 943 740 770 Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurriren egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.
San Frantzisko kalea, 20 behe
Tel: 943 741 645
Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Jausoro, 6 behe.
Goiz eta arratsalde.
Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

Andoni Schmidt Larrañaga

Exterako Fisioterapia

Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajeak. Ekipo portatila. Ordua eskatu.
San Roke 8, behe - Tel.: 689 926 016
Kontsulta ere badaukagu.

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00
Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10
Egunero: 9:30-13:00
16:30-20:00
Tel: 943 743 734

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21
Egunero: 9:30-13:00
16:30-20:00
Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behe (Ermua)
Tel: 943 177 134
irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.
Aita Agirre enparantza, 5 behe.
Tel: 943 530 053 - lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak
Trenbide kalea 21, behe
Tel: 943 531 869

